

BARDINTASUNA. Gremioak alkartea sortu dau Bagabiltzak, Aldundiaren laguntasunagaz

Emakumeek badaukie eraikuntza arloan bidea egiten laguntzeko topagunea

Lanbideetan formakuntzea emotea eta enpresa txikiak antolatzen laguntzea da helburua

Izaskun Basterretxea |

Betidanik gizonezkoena izan dan eraikuntza sektorean emakumei bidea egiten laguntzea da Gremioak alkartearen helburua. Arotza, pintore, iturgin, argiketari, alikatatzaile, beiragile, pladur instalatzaile... eta eraikuntzearen barruan dagozan lanbideetan formakuntzea emotea eta enpresa txikiak antolatzen laguntzea da helburua. Hori dala eta, lan-merkatuan sartu gura daben emakumei begira sortutako topalekua da Gremioak.

Bagabiltza Fundazioak sortu dau, Aldundiko Ekonomia Sustapen Saileko Sustatu programearen laguntasunagaz. Jaurlaritza, Emakunde eta hainbat udalen laguntasuna be izan dabe horretarako.

«Bagabiltza Fundazioan lan egiten dogun emakumeontzat egun itzela; izan be, postura handia izan da Gremioak sortzea, eta eskerrak emon behar jakez hori lortzen lagundu daben erakunde publiko guztiei», esan eban Feli Fernandezek, Gremioak alkarteko zuzendari teknikoak, eta Satur Aboni emon eutson berba egiteko txandea.

Bagabiltza Fundazioako presidentea eta sortzaileetako bat da Satur Abon. Orain dala 14 bat urte sortu eben Bagabiltza, emakumearen alde lan egiteko. «Aurrerapauso handia da guretzat Gremioak alkartea sortzea; izan be, emakumea izateagaitik bakarrik, eraikuntzan baztertu egin ditue emakumeak», nabarmendu eban Abonek.



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Feli Fernandez, Txaro Arteaga, Tontxu Campos, Satur Abon, Sabin Arana eta Maria Asis.

DATUA

25 soldadore ontzian

Sestaoko ontzian soldadura beharrak egiteko, aurton, 25 emakume kontratau dituela nabarmendu eban Sabin Arana Enplegu eta Formakuntzako diputauak. «100 urtean lortu ez dana lortu da orain».

«Eta traba horreei aurre egiten laguntzea, zubi lana egitea da gure alkartearen helburua», azpimarratu eban.

Tontxu Campos Ekonomia

Sustapenerako diputauaren arabera, lana eta aberastasuna sortzen lagunduko dau Gremioak alkartek. «Hori garrantzitsua da, batez be, gero eta gizarte eta bizi kalidade orekatuagoa lortzeko», azpimarratu eban. Hori dala eta, eskerrak emon eutsiezan Bagabiltza Fundazioakoei halako ahalegiak eta beharra egiteagaitik.

Sabin Arana Enplegu eta Formakuntza diputauaren eritziz be, txalogarria da Bagabiltza Fundazioak egindako lana. «Izan be, emakumeen langabezia tasa gizonezkoenaren bikotxa da».

Txaro Arteaga Emakundeko zuzendariak nabarmendu eban aspaldiko amesa izan dala Gremioak moduko ekimena sortzea. «Izan be, emakumea zenbat eta esparru gehiagotan egon orduan eta hobia izango da gizarte bera be».

Marias Asis Bilboko Udaleko Enplegu eta Emakumea Saileko zinegotziak be zorionak emon ostean, holako ekimenei laguntzeko dagozala nabarmendu eban. «Bagabiltza moduko alkarreek aurrera egiteko daukien ilusinoa nabarmendu gura dot gauza guztien artean».

GALDAKAO. Udalak antolatzen dau, euskeraz

Mila bat gaztek hartu dabe parte XV. Literatur Lehiaketan

Erredakzioa |

Galdakaoko ikastetxeetako mila bat gaztek hartu dabe parte Euskerazko XV. Literatur Lehiaketan. Udalak gertetan dau lehiaketea eta irabazleen izenak esan ditue. 1.400 euroko aurrekontuagaz 40 sari banatuko ditue, batez be eskola material moduan.

Aurkeztutako idazlanekin erakusketa bat zabalduko dabe

Torrezabal kultur etxean, eta liburu bat be argitarauko dabe, 3.500 ale inguru, eta Galdakaoko zentro, liburutegi eta ludoteketan banatuko ditue. Hiru ekitaldi gertatu ditue sari-banaketea egiteko. Abenduaren 17an Lehen Hezkuntzakoei emongo deusie; eta abenduaren 18an, goizean, Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren ziklokoiei, eta arratsaldean, Bigarren Hezkuntzakoei.

GIZARTEKINTZA. Aldundiak egin dau proposamena

Gizarte zerbitzuetan batzorde bioetikoak sortzeko asmoa

Erredakzioa |

Gizarte zerbitzuetako profesionalen eta erabiltzaileen artean arazoak sortzen diranean, birtarteko lana egiteko, batzorde bioetikoak sortea proposau dabe Aldundiko Gizartekintza Saileko arduradunek.

Iñigo Pombok emon eban horren barri. Bizkaiko Aldundiko Gizarteratze Arloko zuzendaria da bera. «Osasun

sisteman martxan dagozan bioetika batzordeak ea gizarte gaietan be erabilgarriak diran baieztatu behar da». Batzorde horreetako kideek hainbat arlotako adituak izan behar ei dabe; eta batzordeen helburua arazoak aztertzea ei da, eta ez epaitzea.

Gizarte zerbitzuetan bioetika izeneko jardunaldietan, atsedenaldira baten, emon zituan azalpen horreek Pombok.

LABURAEAN

BILBO

Tranbiaren hiru bagoi historikoren maketak Areatzan ipinitako erakusketan dagoz

Tranbiaren hiru unidade historikoren maketak ipini ditue gaur Bilboko Areatzan, Eusko-Tranek zabalduko erakusketan, eta abenduaren 18ra arte egongo da bertan. Maketa bat Arratiako tranbiaren ganekoa da, orain dala 100 bat urtekoa. Bilboko antxinako tranbiaren ganekoa da beste bat, 1932an eregitako unidade batena. Eta hirugarrena, AEG enpresek 1896an Berlinen eregitako tranbiarena da.

Homosexualidadearen ganeko bideo-berbaldiak egingo ditue hilaren 16, 17 eta 18an

Bilbon, La Bolsa kultur etxean, homosexualidadearen ganeko bideo-berbaldiak egingo ditue abenduaren 16, 17 eta 18an, Gay eta Lesbianen Arreta Zentroak gertatuta. Hilaren 16an: *Gay eta lesbianen eskubideen bilakaerea azken urteotan*, eta *Historias comunes* filma. Hilak 17: *Jaungoikoaren graziaz, homosexual*, eta *Priest* filma. Hilak 18: *Heldutasunera ailegetan garanean*, eta *El club de los corazones rotos* filma. 19:00etan hasiko dira.

BASAURI

Maori kulturearen eta bizimoduaren ganeko liburua argitaratu dau Udalak

Maori kulturearen eta bizimoduaren ganeko liburua kaleratu dau Basauriko Udalak. *Planeta Basauri* programearen barruan argitaratu dabela nabarmendu eben Rafael Ibarguen alkateak eta Urtzi Arriaga zinegotziak eta liburuaren egileetako batek. Aurten, maorien ganeko jardunaldiak gertatu ditue, eta bihar amaituko dira, Ngati Ranana talde maoriarraren kontzertuagaz.

EREÑO

Oinaztu batek gazte bi zauritu ditu San Migel ermitearen alboan

Ereñon, San Migel ermitearen ondoan gazte bi zauritu zituan atzo oinaztu batek. Goizean izan zan ezbeharra, 11:30ak aldera. Istripua izan ostean ertzainak joan ziran bertara eta Galdakao eta Gurutzetako ospitaleetara eroan zituen gazteak.